

AZKUE, KAZETARIA

*Javier Díaz Noci,
Euskal Herriko Unibertsitatea:
Informazio Zientzien Fakultatea*

Ez dugu hemen euskararen ikerketetan eta euskal kulturaren berpiztean Azkuek izan zuen garrantzia azaldu behar. Hizkuntzalari, kanta, ohitura eta ipuin zaharren biltzaile, musikalari, Euskaltzaindiko lehenengo euskaltzainburua, Bizkaiko Foru Aldundiak eraturako Euskal Kate-draren lehenengo irakaslea, Euskal Herriko kulturaren interesik duen edonork badaki haren lan eskergak zenbaiterainoko garrantzia duen euskararen garaipenerako. Haren obra eta bizitzaren alderdi nagusiak ondo aztertu dituzte, besteak beste, Jose Antonio Arana Martijak, Antonio Tovar-ek, Koldo Mitxelenak edota Julio Caro Barojak (1). Ez gara gure aldetik asko luzatuko haietan, baina gehixeago arituko gara, ordea, askoz ere gutxiago ezagutzen den Azkueren beste alderdi batez, guri bereziki interesatzen zaiguna eta inork (sakonki behintzat) aztertu ez duena: kazetaritza lanaz ari gara, noski.

Azkueren lana eta bizitza ezagutzen dituenak badaki Euskaltzaindiko lehen buruak euskara hutsezko bi aldizkariren sorreran parte hartu zuela: *Euskalzale* (1897-1899) eta *Ibaizabal* (1902-1903), Hego Euskal Herriko euskal kazetaritza behar bezala ezagutzeko ezinbestekoak direnak. Haien sorreran parte hartu zuela diogu, eta are gehiago, bien zuzendaria ere baten. Ondo asko dakigu *Euskalzalaren* kasuan, ez horrenbeste *Ibaizabal*enean. Azken honetan hasi zen Evaristo Bustintza —artean *Kirikiño* goitizena erabiltzen ez zuena— bere kazetaritza lanean, Azkuek horretara bultzatuta. Ordurako Euskal Katedran zegoenak Euskal Herrira ekarri zuen Bustintza, eta euskara lantzeko gogoa piztu ere egin zuen, bien arteko gutunetan ikus daitekeenez (2). Gutunen bidez ere badakigu zein zen Azkue eta Tomas de Epalzaren arteko adiskidetasuna. Epalza izan baitzen, hain zuzen ere, *Euskalzalaren* bultzatzaile nagusia. Bi aldizkari eta bi adiskidetasunen historia dugu hauxe.

(1) *D. Resurrección M.ª de Azkue, lexicógrafo, folklorista y gramático*. Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbo, 1966.

(2) Eskertu nahi diogu Jose Antonio Arana Martijari gutun horiek ezagutaraztea.

Euskalzale: Azkue eta Tomas de Epalza

Resurrección M.^a de Azkue, 1864.eko abuztuak Sean Lekeition jaioa, Eusebio M.^a de Azkue olerkariaren semea, Miguel de Unamuno eta Sabino Arana Goiriren garaikidea —hainbestetan azpimarratu den bezala— Teologian doktorea, musikan aritua —Köln-eko kontserbatorioan goi mailako ikasketak burutu zituen—, euskal idazlea, aipatutako bere garai-kide haiek ere lortu nahi zuten Euskal Katedra eskuratu zuen (3). 1891.ean *Euskal Izkindea* euskaraz eta gazteleraz idatzitako euskal gramatika. *Bein da Betico* elaberria 1893.ean agertu zen, eta *Vizcayatik Bizkaira* opera ere idatzi eta estrenatzeko astia ere bazuen, 1895.ean, *Euskalzale* astekaria kaleratu baino lehenago. Bitartean, *Método práctico para aprender el vascuence guipuzcoano y vizcaíno* eta *Jesus Biotzaren Illa* liburuak, zarzuela batzuk eta bere hiztegi eskerga ere prestatzen hasia zen. Kazetaritzan ere aritua zen, 1888.eko *El Vasco* egunkariaren *Apis* literatur gehigarrian eta 1889.eko *La Abeja*. *Revista mensual científico literaria* aldizkarian. Bietan bazegoen zertxobait euskaraz, halanola lehenengo aldizkarian Felipe de Arrese Beitiaren olerkiez gain, 23. alean agertutako *Antonio Rosmini Abadiaren berrogei aipamen, Erroma-co Eginkizun-santuco billera Goyenen-guandic debecaubac, eta 1888-co martiyaren 7an argitaratuac*, Durangoko Garitaonaindia abadeak itzulia “como una prueba más de que no carece [euskarak] de voces científicas y abstractas, como alguien ha supuesto”.

La Abejan ere euskarazko zenbait testu agertu ziren, esate baterako *Peru Matraka ta Pedr'Anton*, “Ezti-Abaua” delako batek sinatua, eta *Ez-tenak*. *Jolas aldia* (*Sección recreativa*). Batzuren ustez Azkuek berak bi aipatu aldizkariak zuzendu bazituen ere, guk ezin izan dugu datu hori baieztatu.

Dena den, Azkuek lanerako izugarrizko kemena zuen, horren adibide Tomás José de Epalzak 1896 eta 1902 urteen artean bidali zizkion gutunak. Pasarte batzuk ikusiko ditugu hemen. Tomás José de Epalza y Palacio, Banco de Bilbao sortu zuen familiakoa (bere aita Domingo de Epalza y Larraondok, honen lehengusua zen Pablo de Epalza y Lecandak eta Tomás José de Epalza y Zurbaranek eratu zuten), bilbotarra, 1854.ean jaioa, bera ere Bankuko kontseilaria izan zen 1895.etik 1913.erarte. Azkueren proiektuak bideratzeko dirua eman zutenetarikoa bat, Lekeitioko abadearen ikaslea izan zen, bere obra bat halaxe sinatu baitzuen (1896.ean argitaraturiko *El euskara o el baskuente en 120 lecciones*) (4), beti diru laguntza eman zion Azkueri, lehenengo aldiz, guk da-

(3) Ikus *Euskera*, XXIII, 2. aldia, eta bereziki Arana Martija, J.A.: “Euskal Katedraren lehiaketa eta eragina”, 361-378. orrialdeak.

(4) Datu guztiak La Gran Enciclopedia Vasca-tik atereak.

igunez, 1895.ean, bere *Método práctico para aprender vascuence guipuzcoano y vizcaíno* argitaratu nahi zuenean:

“He sabido que V. piensa publicar una gramática vascongada práctica”, dio Epalzak Azkueri idatzitako gutunean, “y si por acaso fuese su idea hacer una tirada popular y económica, tendría mucho gusto en contribuir a ella para que V. pudiera venderla á dos reales ejemplar. Mi deseo de que V. pueda hacer una buena tirada y de que no se pierda el idioma de nuestros mayores, es lo que me mueve á ponerme á su disposición (. ..)” (5).

Dirudienez, Azkuek bazuen 1896.ean astekari bat kaleratzeko asmoa, inprimatzeko makina bat erosteko ahaleginak egiten baitzituen. Horretarako, Epalzaren laguntza behar omen zuen, eta bilbotarrak aholku hau eman zion:

“(...) No haga V. el desatino de comprometerse con la máquina de imprimir (...). Dentro de un año ó año y medio, por la mitad de dinero de lo que cuesta una máquina Escudet, podrá V. comprar una pequeña maquina eléctrica cuyo gasto de sostenimiento no será la mitad. Ya comprenderá V. que todas las actuales imprentas están llamadas a desaparecer ó transformarse” (6).

Azkueren izakera gogorak ezin zuen jasan bere obrak euskaraz ez zekitenek inprimatzeagatik akatsez josita agertzea, 1889.ean gertatu zitzaion bezala (7), beraz bere inprimagailua edukitzea deliberatu omen zuen. Bertan egingo zen *Euskalzale*. astekaria (*Astean asteango albistaria*, jartzen zuen izenaren azpian). 1897.eko urtarrilaren 3an agertu zen lehen aldiz, Bilboko Jardines kaleko egoitzatik. Bertan *moldagintzea* eta *liburutegia* zeuden, urtebete lehenago Azkueren beste eginkizun bat, euskal eskola, ireki zuen leku berean, han non antzoki txiki bat zegoen (8). Azkuek berak zuzentzen zituen eskola eta aldizkaria. *Euskalzale* kaleratu baino lehenago, Azkuek —euskal prentsan maiz gertatuko zen bezala— propagandazko orri bat eman zuen argitara, Epalzak ordaindu zuena:

“Amigo Don Resurrección:

Adjunto le envío las cincuenta pesetas que le prometí para gastos de propaganda del *Euskalzale*, y deseo que los ejemplares que remite de mues-

(5) 1895.eko irailak 10eko gutuna, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan gordetzen dena, aipatuko ditugun beste guztiak bezala. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Jose Antonio Arana Martijari gutun hauek ezagutarazteagatik, lan hau burutzeko ezin baliotsuagoak.

(6) 1896.eko irailaren 25eko gutuna.

(7) Urte hartako abenduak 19an Bizkaiko Foru Aldundiko agintariei gutun batean esan zion “que por aversión de sus funcionarios al euskera no ha conseguido imprimir en la imprenta provincial los opúsculos de Gramática” (J.A. Arana Martija, op. cit., 374. orrialdean aipatua).

(8) Arrien, G.: *La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares 1932-1940*, Editorial Onura, Bilbo, 1983, 46. orrialdea.

tra le proporcionen cuando menos un suscritor [sic] nuevo por cada amar-geiak (...)” (9).

Orritxo hartan agertzen ziren Azkuek bere aldizkarirako nahi zituen zutabeak:

“(…) Elizgizonak izango dira paper onetan iratsi edo eskribiduko daben geienak, R.M. Azkuetar artezkari dala (...). Erderazko gauzarik ezta ezer agertuko, guztia izango da euskeraz egina. Onetarako alik garbien da errazen agertuko dira euskerazko berbaak. *Bentanea, sillea, pareta, confesinoia, primerako billetea, ferrocarrileko estazinoia, habitazinoiak, fondak, jardinak* eta euron antzeko berba guztiak oraindexek pilotuten axiko dira; ta iru urte barru, lenagao ezpada, euron ordezeko berba garbi ederrak zabaldu daizanean, su emongo iako erderakada-pilo orreri” (10).

Azkuek, euskara kontuetan jakintsutzat hartzen hasia, bere teoriak azaltzeko baliabide bat behar zuen, huraxe *Euskalzale* izan zen. Hasiara hasieratik azaltzen du Azkuek lexikoari buruzko bere jarrera, hitz bitan esanda, erdarazko hitzik erabili beharrean euskararen altxorretikoak nahiago zituelarik, nahiz eta alderdi geografiko oso murritzean erabiliak izan. Ortografia ere (gogora dezagun artean ez zegoela finkatuta) berezia zen. Guzti horretaz ere Epalzak aholkuak ematen dizkio:

“Ya siento que, salvando los principios, no hubiera V. empezado por escribir Bizkaya, ogiya, chakurra, etc., pues el Vulgo (que somos la inmensa mayoría de los hombres) hubiera facilitado mucho la lectura del Euskalzale; ahora ya es tarde (...)” (11).

Zenbait neologismori buruz ere iritzia ematen dio:

“A mi juicio no hallo tan lógico el que V. haya adoptado en Euskera los nombres de ‘pájaro grande’ y ‘pájaro chico’ aun cuando algunos los llamen así sin más lógica ni razón que ‘por que sí’. Creo que sería más Euskaldun, propio y lógico ampliar á este caso las tan usuales y castizas voces de *amarreko* y *bosteko* (...)” (12).

Horrelako gazetaz arituko da Azkue *Euskalzalzen Vascofilok Euskalzaleri* izena duen atal batean, astero agertuko zena. Baliteke gaur egun txantxetako gauza iruditu eta “z” edo “c”z, “tx” edo “ch”z idazteak inolako garrantzirik ez izatea, baina garai hartan ortografia bata ala bestearen aldekoen artean izugarritzko eztabaidak eta arazo konpongaitzak sortu ziren. Mende bat lehenago Juan Antonio de Moguelek –XX. mendeko euskaltzale askorengan, Aranarengan berarengan ere bai, hizkuntza kontuetan ezezik ideologikoki ere izugarritzko eragina izango zue-

(9) 1897.eko urtarrilaren 16ko gutuna.

(10) *Euskalzale*, 1897.eko urtarrilaren 3a, 1. zenbakia, 1. orrialdea.

(11) 1897.eko urtarrilaren 19ko gutuna.

(12) 1897.eko urtarrilaren 16ko gutuna.

na— bere *Peru Abarca* idazterakoan, “los bascongados franceses llenan de esta letra *h* todas sus obras (...). Se valen también mucho de la letra *k*, y es mucho embarazo para los demás bascongados que no la usamos en voz alguna” dio. *Euskalzale* agertzen zen garaian, euskaraz irakurtzen zekitenak oso gutxi ziren, Azkuek berak zeraman Katedra sortu arte nork ia bere modura irakurtzen ikasten baitzuen. Ortografien sakabanaketak ez zuen askorik laguntzen euskara hedatzeko orduan. Azkuek eta Arana Goirik, nork bere liburu eta aldizkarietan, ortografia bana —baina antzekoa— proposatzen zuten.

Euskaldunen analfabetismo haundia —euskaraz, noski, ez erdaraz— kontuan harturik, nora jo zuen Azkuek? Batez ere apaizengana, haiek baitziren hizkuntza idatzia aspaldidanik hobeto zaintzen zutenak:

“(…) Batez bere abatetxeetan (euskeraz maiteen dabenak, elizgizonak irutarik bitan izaten direalak) atek zabal zabal eginaz abegi ona egingo dautsela gure anaiak *Euskalzaleri* (...)” (13).

1897.eko martxoaren 25ko alean berriro aztertzen ditu Azkuek gaia *Elizgizonak eta euskerea* izeneko testuan, apaizei hitzaldiak euskaraz egi-tea gomendatzen dielarik:

“(…) ¿Euskeraz, erderaz baizen ondo, ezin leikezala gauzak azaldu? Euskereak erderak beste esakera ta geiako daukaz. Euskereak daukana da: irakurle gitxi ta sasi-iakitun asko” (14).

Are gehiago, hurrengo alean proposatzen du:

“(…) Esan daiela sarri-sarri iardulariak *perfeziño*, *konfesiño*, *komuniño*, *dolore*, *plazo*, *soltero* (...) ta burua erdi-galduta daukan zaarren batek esango dauz aurrerantzean *osotasun* edo *ornidutasun*, *autortute*, *Iaun-artute*, *garbae*, *damu*, *epe*, *eskontzaga* (...)” (15).

Hau dena zeren eta Azkueren ustez “elizgizonak dira gaur-egunean erri geien geienetan dagozan irakasle bakarrak” (16). Esan bezala, *Euskalzale*, beste gauza batzuren artean, Azkueren hizkuntzari eta batez ere neologismoei buruzko ideien igorle bihurtzen da. Zer esanik ez, Bizkai-ko Foru Aldundiko Euskara katedraren lehen irakasleak erdaratik hartutako hitz guztiak euskararen altxorrekoen truke aldatzea proposatzen zuen, nahiz eta azken hauek oso leku gutxitan erabiliak izan. 17. alean batez ere elizgizonei zera eskatzen die:

(13) *Euskalzale*, 1897.eko urtarrilaren 1, 1. zenbakia, 1. orrialdea.

(14) 1897.IV.01, 14. zenbakia, 1. orrialdea.

(15) 1897.IV.01, 14. zenbakia, 1. orrialdea.

(16) *Ibidem*.

“Bialdu daiezala *Euskalzale* agertuko direan berben ordezkoak. Onetarako ezdago gauza obarik, bakotsak beren errialdekoai dakiena edo dakiensua ataratea baiño” (17).

Honekin batera Azkuek bere konfidantza guztia irakaskuntzan jar-tzen du:

“Egunik txarrenak ikusita daukaz gure berbeta eder onek. Aurreran-tzean beren egunak ez-tira izango gaur-artekoak baizen odait-suak eta illunak. Sortuko dira or da emen umeentzako ikastetxeak, Bitoriako Abade-Ikaste-txean (bearren dan tokian) euskerea oparo ta gogoz ikasiko dabe gazteak, gero eurak izan daitezcan errietan euskera garbi garbia irakatsi daienak; eta azkenez zelanbait, nunbait, nortzukbait eta noizbait sortuko dabe Ikasola edo *Akademia* on on bat” (18).

Aldi berean, Azkue kez-kati agertzen zen erdal eskoletan euskarak nozitzen zuen atzerapenarengatik. Hala adierazi zuen, esate baterako, 1898.eko uztailaren 14ko *Euskalzalean* “euskerea galtzen deuskuela” dioenean.

Epalza eta beste lagun batzuri ezker, *Euskalzale* bigarren urtera ai-legatzen da. Epalzak, zehazki, hala ziotson Azkueri 1897.eko urriaren 8ko gutun batean:

“Amigo Don Resurrección: Adjunto un anteproyecto de portada, para que V. lo redacte como mejor le parezca.

Está puesto con la idea de interesar á los que poseen el baskuenze y hacer desaparecer el temor de que *Euskalzale* está próximo á morir. No conviene por lo tanto que nadie imagine de donde salen las 75 pesetas para los premios, sino mas bien que piensen que son parte de las ganancias de la Revista (...).”

Hala eta guztiz ere, Azkuek kementsu jarraitzen zuen lanean. Egita-smo askorekin, gainera. 1898.eko lehenengo hilabeteetan, Azkuek, *Euskalzale* kaleratzeaz gain, eta Euskal Katedraz arduratu ezezik, beste gauza batzutan ere sartuta zegoelarik, aldizkarian gauza berriak martxan jarri nahi omen zituen. Bere ekintza nekaezinaren berri ematen digu be-rriro ere Tomás José de Epalzak 1898.eko apirilaren 29ko gutunean. Banco de Bilbao-ko kontseilariak aholku ekonomikoak ematen zizkion Azkueri. Azken finean, dirua Epalzarena zen. Luzetxo bada ere, merezi du gutun hura ia osorik aipatzeak:

“Amigo Don Resurrección. He pensado en la sección especial de Mú-sica Euskera de que me habló V. ayer, y como le dije me parece *en princi-*

(17) 1897.IV.22, 17. zenbakia.

(18) Ibidem. Azkuek ideia aipatzen du Akademia sortu baino bi hamarkada lehenago. Bera izango zen lehen euskaltzainburua.

pio una idea muy laudable, pero los *peros* que yo le puse los hallo de muchísima trascendencia (...). No se trata de que dé V. esa idea al olvido, solo de que la aplase para mejor ocasión. Está V. hoy muy atareado, pues además de su Ministerio, de la clase de Euskera y de la redacción de la Revista, tiene V. una porción de cuitas muy importantes (...).

El número extraordinario de Navidad no admite espera (...). Además tiene V la impresión del *Peru-Abarka* (...). Además el Diccionario *Manual*, que me temo que en vez de manual va a resultar Monumental (...). Además tiene V pendientes la impresión de la Historia Sagrada, de la Geografía, y no faltará alguna otra cosita más; y quien mucho abarca poco aprieta.

Además que en la parte económica tiene V unos cuantos déficits y no debe V exponerse a sumarlos con otro más, aunque éste sea pequeño. No le quepa a V la menor duda de que la impresión de la sección musical le dará déficit, por lo menos el primer año; y esto contando con que algunos buenos amigos (entre cuyo número me cuento) al fin propuesto hagamos algún sacrificio en su obsequio y por amor al país (...).

¿Y cómo va la cuestión de la subvención de la Diputación? Debe V procurar que no se escape otro semestre como el anterior (...)

Ikusten dugunez, Azkue ez omen zen oso ona diru kontuetan. Hala ere, denborak arrazoia eman zion: Hiztegia, *Peru Abarkaren* edizioa eta *Euskalzaleren* musika atala (partiturak eta guzti) argitarara eman zituen. Epalzaren laguntza ez zen falta:

“Amigo Don Resurrección” —zioen 1898.eko azaroaren 10ko gutunean—, “he encargado que hagan una tirada de dos mil *Peru-Abarca* y les pongan el precio de 2 pesetas, para que den más importancia al regalo y pueda Euskalzale sacar algo con los números que se vendan (si se venden) (...)”.

Saldu ala ez saldu, *Euskalzale* hiru urtetan kaleratu zen, eta argitarazeari utzi ziotenean ere, Bizkaiko Gobernadore zibilaren aginteak euskaraz eta erdaraz idaztera behartzen zuelako zen: Azkuek ez zuen agindu hori onartu nahi izan.

Hiru urte haietan, Azkuek Hego Euskal Herriko euskaraz egindako lehenengo aldizkari modernoa ateratzea lortu zuen: aurrekoak kulturalak ziren, batipat, baina Azkuerena bestelakoa zen. Kulturala ere bai, noski, ehundaka testu zahar, olerki, ipuin, partitura, kanta argitaratu baitzituen. Baina informatizailea ere bazen. Iritziak —linguistikoak, batez ere—, irudi eta argazkiak ere *Euskalzalen* nonahi aurki daitezke, garai hartako eta geroagoko euskarazko aldizkari askotan ez bezala. Komiki bat —edo behintzat komikien aitzindarien antzerako istoriotxo bat— ere azaldu zen *Euskalzaleren* orrialdeetan, 1898.eko irailaren 22ko alearen azken orrialdean agertzen dena, testua B. Mokoroak eta marrazkiak Xandaro delako

batek egin zituztelarik (19). Azkueren genio unibertsalak hala lortu zuen, idazle askoren laguntzarekin, noski: hor dugu Karmelo eta Bonifacio Etxegararen testua, Urruzuno, Unamunzaga, Campión, Zamarripa, Iturrioz, J. Artola, Azkunaga, Madinabeitia, Dodgson, B. Mokoroa eta beste abar luze batenak, garaikideen artean. Ezin falta Emeterio eta Felipe Arreseren olerkiak, Eusebio Maria Azkuerenak, eta Domingo Agirreren euskal elaberri sortzailearen nobelak. Idazle zahar eta urte haietako askorentzako ezezagunen artean hor ditugu Iztueta, Cardaberaz, Larramendi, Iturriaga, Mendiburu, J. B. Elissambururen testuak, besteak beste, eta ezin ahaztu Azkueren aldizkarian agertu zela lehen aldiz Pedro Ignacio Barrutiaren *Acto para la Nochebuena*, euskaraz ezagutzen dugun lehehengo antzerti testua, Azkuek 1897.eko Gabonetan argitaratzerakoan *Gabon gaberako ikuskizuna* deitu zuena, *erderakadak* zuzendu gabe —nahiz eta bere iritzia normalean guztiz bestelako izan. Honetan, beste gauza askotan bezala, Resurrección M.^a de Azkue aitzindaria izan zen.

1899.eko irailaren 27tik (aurreko 37 zenbakiak euskara hutsezkoak ziren), Bizkaiko Gobernadoreak agindu bide zuen *Euskalzale* euskaraz eta gazteleraz ager zedila. Hala egin zuen Azkuek: aldizkaria bi zutabetan banaturik zegoelarik, ezkerrekoan euskarazko testua eta eskubikoan erdarazkoa jarri zuen. Urrian Gobernadore Zibilak ehun pezetatoko diruzigorra ezarri zion aldizkariari, *Euskalzaleen* lagunek ordaindu zutena. 1900.ean ez zen Azkueren aldizkaria agertu, baina horrek ez du esan nahi Euskaltzaindiko lehen burua izango zenaren kazetaritza ekintzak hor bukatu zirenik. Diruzigorra ordaindu zutenetarikoa baten laguntzaz beste aldizkari bat kaleratu zuen 1902 eta 1903.ean: *Ibaizabal*.. Gizon hura —*Euskalzalen* ere zenbait testu argitaratu zuena— Ebaristo Bustintza zen.

Ibaizabal: Azkue eta Bustintza

Azkue eta Bustintzaren arteko harremanak 1896.ean hasi ziren, J.A. Arana Martijak dioenez (20). Urte hartan Bustintza Almansan zegoen maisu. Euskaldun zaharra bazen ere, Ebaristo Bustintzak ez omen zuen euskara kontuetan bere buruarengan konfidantza haundirik:

“(…) Nik, beste askok leguez, umettatik ikasi neuan euskara entzutez bakarrik”, aitortzen zion Ebaristo Bustintzak Azkueri egindako ezagutzen

(19) *Txakur saltalaria* zuen izena historieta hark. Garai hartako komiki modukoetan bezalaxe, *balloonen* ordez didaskaliak (marrazkien azpikaldean ipintzen ziren testuak) agertzen ziren.

(20) Arana Martija, J.A., op. cit., 376. orrialdea. Arana Martijak berak ezagutarazi dizkigu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako Artxibategian gordetzen diren R.M. Azkue eta Ebaristo Bustintzaren arteko gutunak.

dugun lehen gutunean (21). “Beti euki daut guraria ondo neure iaio-itzkera iakiteko”.

Bere euskara hobetzeko, Bustintzak, hamabi urte zituenetik Euskal Herritik kanpo bizi zena, Azkueren “izkindea” erabili zuen. Horrek piztu zion euskararenganako maitasuna:

“Zerbait izkinde onetan irakurri neuanian asmoa artu neuan, iztegui bat, biurgaiak eta beste libururen batzuk erosteko (...). Esan eistazu, bada, [eskatzan zion Azkueri] ze liburu neugandu biar daudan, euskara ondo ikas-teko daukadan guraria betetako” (22).

Lehenengo gutun hartan Bustintzak Azkueri galdetzen zion ona izango ote zen “or Bilbon ‘Euskalzale’ deritson *periodico* bat” irakurtzea. Esan bezala, Ebaristo Bustintzak zenbait testu bidali zuen *Euskalzalera* 1899.ean, *Mañari* izengoitiaz sinatuak. Laguntzaile izateaz gain, Azkueren aldizkariaren irakurle ezin hobea zen. 1900.eko otsailaren 3an bidalitako gutunean, Mañarikoak falta zitzaizkion aleak eskatzen dizkio Azkueri. Hori ez da, ordea, garrantzitsuena gutun hartan, Bizkaiko Gobernu Zibilaren presioak zirela eta aldizkaria ixteko erabakiarekin bat zetorrela beste proiektu batzutarako prest zegoela esaten baitio Azkueri. Luzeegia ez denez, uste dugu Bustintzaren lerroak hona ekartzeak merezi duela, Azkuek —gero ikusiko dugun bezala— oso kontuan hartu baitzituen:

“Recibí el volante en que se anunciaba la desaparición de *Euskalzale*. No tengo necesidad de expresar lo que lo he sentido, pero ya que se veían en la necesidad de publicar la revista en la forma impuesta por el Gobierno, han hecho perfectamente en suprimirla y les felicito por ello (...).

Sólo digo (pero de veras) que V. para empresas como la de *Euskalzale* (...) que tiendan a emancipar á nuestra raza de la injusta opresión en que se halla, me tiene y me tendrá siempre é incondicionalmente a su disposición, dispuesto a todo con los cuatro ochavos que haya en mis bolsillos, con mis brazos y con mi pobre inteligencia (...)

Jose Antonio Arana Martijaren hitzetan, “hainbat arazotan sartuta zegoen Azkue eta hiztegia ere burutzen ari zen. Laguntzaile bat behar zuen bai katedrarako eta bere lanetan ardura pixka bat beste baten esketan uzteko” (23). Azkue berehala interesatu zen artean Siguenzan zegoen gazte hartaz. Goian aipatutako gutuna jaso eta egun batzuetara, 1900.eko otsailaren 9an, Azkuek datu gehiago eskatu omen zizkion. Hona hemen Bustintzaren erantzuna:

“Soy hijo de un maestro cantero de Mañaria; á los doce años de edad fui a Almansa á casa de un tío mío natural de Abadiano, é hice allí los

(21) 1896.eko abuztuaren 25koa.

(22) Ibidem.

(23) Op. cit.

estudios del bachillerato; más tarde estudié en Madrid la carrera de ciencias físico-matemáticas, licenciándome en el año 1895; entonces vine á este Colegio-Seminario encargado de la enseñanza de Ciencias, y aquí estoy” (24).

Osaba eta anai-arrebekin bizi zen lehen, gero, osaba hil zenean, aita eta ama ere Almansara joan ziren. Etxean guztiek euskaraz hitzegin zuten, “y solo con esto comprenderá usted que no hay nada de particular en que yo haya resultado, á pesar de tan larga ausencia de esa tierra, en bizcainazo tan auténtico y tan castizo como el pastor que con más garbo zarandee las abarcas por entre los peñascales de Mañaria”. Gutun hartan Bustintzak eskertzen dio Azkueri “por su ofrecimiento de trabajar por mi repatriación, en el caso de que me viniera bien”, katedra bat lortzeko aukerarik zuenik ez baitzuen uste Mañarikoak, eta horregatik “estoy decidido á dedicarme á cualquier profesión adaptable á mis alcances y á mi instrucción, siempre que me proporcione de una manera estable ó permanente lo necesario para vivir modestamente como yo acostumbro”. Ebaristo Bustintzak 33 urte zituen, frantsesa eta ingelesa piska bat bazekien, eta berdín zitzaion “la índole del trabajo con tal que yo pueda realizarlo“. Ziur aski, gero *Kirikiño* izango zenak ez zuen ezta pentsatu ere lanbide hori kazetariarena izango zenik.

Baina Azkuek bai. Artean bazuen beste aldizkari bat argitaratzeko asmoa, eta halaxe esan zion Bustintzari 1900.eko apirilaren 6ko gutun batean. Azkuek gauza batzuk galdetu zizkion: nolako euskara erabili beharko zuten, aldizkariaren izena, eta, garrantzitsuena, ea zuzendaria izan nahi zuten:

“Pero no puedo aceptar por la sencilla razón de que no he sido nunca periodista, ni de cerca ni de lejos, ni sé con qué se guisa eso” (25).

Baina Resurreccion M.^a de Azkue ez zen aise errenditzen direneta-rikoa, eta insistitu egin zuen, Bustintzaren ezetak errepikatu baziren ere (26). Azkueri Bustintza Euskal Herriratzea interesatzen zitzaiola garbi zegoen; aldizkariarena ezezik, beste gauza batzuk ere proposatu zizkion: Sotaren semeen irakasle moduko bat izatea, esate baterako, Bustintzak onartu ez zuena zeren eta “umezaiña zan irakaslea baiño geiago” (27), edota Azkuek prestatzen zuen hiztegi eskergarako laguntzaile izatea. Hasieran ezetz esan bazion ere (“usted cree que yo domino

(24) 1900.eko apirilaren 3ko gutuna.

(25) 1900.eko maiatzaren 13ko gutuna, Sigüenzatik bidalia.

(26) “No puede Vd. figurarse lo que siento haber perturbado su proyecto de la creación del periódico con negarme a dirigirlo. ¡Si yo tuviese un barniz siquiera de periodista, con qué gusto me pondría a su disposición!”, erantzun zion Bustintzak Azkueri 1900.eko ekainaren 27ko gutunean.

(27) 1900.eko urriaren 21ko gutuna.

el idioma y no hay tales carneros” (28), dio artean Siguenzan bizi zenak), gero hiztegia (eta aldizkarian) parte hartzea onartu zuen. 1901.ean Bilbora joateko prestakuntzak hasiak ziren, eta urte hartako gutunetan behin eta berriro aipatzen da aldizkariaren asmoa. Kazetak badu izena: *Eguna*, Bustintzak proposatu zituen beste guztiak alde batera utzita (29): *Ze barri?*, *Barrizale*, *Barridun*, *Or emen*, *Azaldari*, *Batzaille*, *Agerkari*, *Euskalzale* eta *Geutarra*, garai hartan modan zeuden erdarazko izenak itzultzea, “como la Voz de tal, ó el Eco de cual” ez baitzuen batere gogoko.

Arazo batzuek atzeratu zuten Azkueren aldizkari berriaren agerpena: lehena Bustintzak zango batean nozitu zuen istripua izan zen. Argi dago, ordea, benetakoa zuzendaria Azkue bera zela. Ikus dezagun zer diotson Bustintzak Azkueri 1901.eko urtarrilaren 6ko gutunean:

“(…) Escribi a V. el [1900.eko abenduak] 27 dándole noticia de lo que sucedía, y le encomendaba que me enviase el periódico, dirigiéndolo a mi hermano Paulino, el cual ha de ser suscriptor; no lo hemos recibido, y esto unido a que en el Noticiero Bilbaíno no he visto la noticia de su publicación, me hace temer si a última hora habrá habido alguna dificultad por parte de la autoridad que haya hecho fracasar el proyecto”.

Hurrengo gutun batean, Azkuek baieztatzen dio agintariek oztopoak jartzen dituztela aldizkariaren bidean. “Era de temer”, dio Bustintzak 1901.eko urtarrilaren 29ko gutunean, “sabiendo cómo las gastan en esta tierra en achaques de libertad”. Osasun arazoak behin konponduta, 1901.eko uztailaren 26an Bustintzak ezagutarazten dio Azkueri Bilbora doala. *Eguna* agertzeaz zegoen, nahiz eta arazo politikoak egon: Azkuek kaleratu nahi omen zuen urte hartako martxoaren 6rako.

Ez zen egun hartan agertu, ez eta urte hartan ere. Azkueren euskarazko bigarren aldizkariaren lehen zenbakia 1902.ean argitaratu zen, urtarrilaren 5an. Handik bi urtetara igandero agertu zen, “bizkaitarrez eta guipuzkoarrez eguiña”, *Bloak* (Bustintza Lasuen Olaso Aguirrerren akrostikoa) zuzendua, izenez behintzat. *Ibaizabal* kaleratu ahal izateko, Azkuek berriro Tomás José de Epalzaren laguntza izan zuen, 1902.eko urriaren 30ko gutunean ikus daitekeenez.

Ibaizabalek Euskalzalaren bideari jarraitzen zion, eta Azkueren asmoa euskarari aldizkari bat ematea zen (30). Beste gauza batzuk bezala, Azkuek argi eta garbi ikusten zuen komunikabideek hizkuntzei bultzada handia egiten zietela munduko bazterrik izkutuenean ere:

“Gaur Boerrak eta Ingualesak eztabaidan darabilen errialdeko guizon baltzak be, euren izkuntzetan periodikuak daukez (...)” (31).

(28) 1900.eko ekainaren 27ko gutuna.

(29) 1900.eko maiatzaren 13ko gutuna.

(30) Ikus 1. zenbakia, 1. orrialdea.

(31) Ibidem.

Hala ere, bazegoen *Ibaizabal* eta *Euskalzaleren* arteko ezberdintasunik: idazkera horietako bat zen. Azkuek Bustintzaren aholkua kontuan hartu zuen: *Bloak*, kazetaritzan berria izan arren, ederki susmatzen zuen ahalik eta irakurle go handienara ailegatzeko, hizkuntzak ere ahalik eta errazena izan behar zuela. Ikus dezagun zer esaten zion Azkueri lekei-tiarrak bere aldizkari berriaren zuzendaria izatea proposatu zionean:

“Sobre la ortografía creo que será mejor no chocar con el pueblo, y escribir de modo que la mayoría pudiese leer de corrido o sin esfuerzo, porque habrá muchos, sin duda, que desmayarán si les cuesta trabajo enterarse de lo que leen” (32).

Bustintzak, aldi berean, gogoratzen dio Azkueri *Euskalzale* irakur-tzen zuten askok esaten zutela Azkuek erabilitako hizkera zela “vascuence (...) *sui generis*, no el que hablábamos todos, sino uno inventado para su uso particular por los que tenían afición a estudios filológicos” (33). Bustintzak tarteko idazkera bat proposatzen zuen, “zezena” eta ez “cecena”, adibidez, edo “katua” “catua”ren orde, baina “gizon”, eta ez “gizon”; “rr” bikoitzak ere mantendu behar zirelakoan zegoen. Hala egitea deliberatu zuten “Hendaya-ko Batzarrak berari jagokazan frutuak emon arte” (34).

Ortografia edo idazkera ez zen *Ibaizabalen* berrikuntza bakarra. Bizkaierak eta gipuzkerak elkarrekin bizi behar izango zuten. Orduan ez zuen Azkuek bere gipuzkera osotua proposatu, eta bizkaieraz idazten zuen gehienbat. Mamia ere, nolabait, berria zen. Edukin literarioak, mantentzen baziren ere neurri handi batetan, beren lekua uzten zihoa-zen edukin informatiboei. Hala definitzen zuten Bustintzak eta Azkuek beren aldizkaria:

“Abegui on bat euki bear leukela IBAIZABAL-ek uste izan leike, da-roazan kondeziño edo baldintasunakaz: erreza irakurtea, erreza adituten, albisteduna (gaur albiste edo barriari gora andia emoten iake), euskalerrian gaur entzute guien dauken izkiralari edo eskritoreen bertso ta irakurkizuna-kaz, eta ganera ondo merkea (...)” (35).

Lau zutabetan banaturik, *Euskalzalek* ez bezala irudirik ez zeukan (36). Nolabait esateko, *Ibaizabalek* garaiko egunkarien antza zeukan, bai kanpoko ezaugarriei, bai edukinei dagokienez. Atal egonkor batzuk bazituen, hala nola lehen orrialdean ezkerreko bi edo hiru zutabetan sinadurarik gabeko artikulua (ezizen batzuk agertzen ziren: *Bloa* –Eba-

(32) 1900.eko maiatzaren 13ko gutuna, Sigüenzatik bidalia.

(33) *Ibidem*.

(34) *Ibaizabal*, 1902.eko urtarrilaren 5, 1. zenbakia, 1. orrialdea.

(35) *Ibidem*.

(36) *Ibaizabalek* ez zeukan inprimategi propiorik, eta La Editorial Vizcaínaren moldiz-tegian egiten zen.

risto Bustintzarena—, *Eketa eta Akordagoitia*, batez ere), ziur aski Bustintza edota Azkuerenak. Olerki edo ipuinen batek betetzen zuen lehen orrialdearen gainontzekoa.

Bigarren orrialdean astero agertzen zen “Baserritarrentzat” izeneko atala, nekazal gaiekin noski, Zumelaga delako batek idatzia. *Ibaizabalen*, hurrengo euskal aldizkarietan bezala, baserritarra ondo zaintzen zuten. Horrelako nekazal atalak ia euskal aldizkari guztietan agertuko ziren. Nekazarietzako eskolak, apaizek gidatuak, proposatzen zituzten, haiek “izan litezke gauz ontan maisuak”, eta Madrileko *La Industria pecuaria* eta *El progreso agrícola y pecuario* eta Pariseko *Journal d'Agricultura Practique* irakurtzea gomendatzen zuten (37). Ez da batere harritzekoa, beraz, *Gipuzkoako Nekazaritza* aldizkaria sortu zenean harrera ezin hoba izatea *Ibaizabalen* aldetik (38).

“Adiskide bi autuan”, “Euskaldun erdalzalea” edo beste atalen batek osatzen zuen bigarren orrialdea. “Asteko berriak” (Bizkaia eta Gipuzkoakoak, batez ere), oso motzak, “Izkirimiriak”, “Igarkizunak” aurki zitezkeen hirugarren eta laugarren orrialdeetan, folletoiarekin batera.

Idazleen artean, Ebaristo Bustintza eta R.M. de Azkue izan ezik, beste izen ospetsu batzuk ere aurki ditzakegu: *Ibaizabalen* beren olerkiak argitaratu zituzten, esate baterako, Emeterio Arresek, Felipe Arrese Beitiak, Ramon Guelbenzuk, Victoriano Iraolak, Enrique Elizecheak, Eugenio Urrozek, Jose Artolak eta Pedro Enbeitak. Poesia asko agertu ziren *Ibaizabalen*, 1902.eko otsailean “Bertso-batzaldi” bat antolatu baitzuten, “Tabernaren bizimodua” gaia zelarik. Saria Eusebio M.^a Azkueren *Parnasorako bidearen ale* bat zen. Paulo Zamarripak, F. Arriolak, Basilio Joannateguyk, Jenaro Elizondok eta K. Amonarriek beren artikulua argitaratu zituzten. Ezin ahaztu, bestalde, geroagoko euskal kazetaritzan oso garrantzi handia izango zuen Gregorio Mujika.

Ibaizabalen folletoiak ere agertu ziren, gero La Editorial Vizcaínak (aldizkaria bere argitaratzen zuen argitaldaria) liburu moduan kaleratu zituenak: Moguelen *Berbaldiak: Eguen Santu. Arratsalderakoa* eta B. Mokoroa tolosarraren *iiAitortu eguin bear!! edo guraso baten eztuamenak. Eguintza bakarreko jostirudi edo komedia* 1902.ean agertu ziren. *Pachiko Cherren* eta Jose Artolaren *Bissente. Jostirudia bi eguintzetan* 1903.ean agertu ziren.

Idazleak aztertuta, irakurleagoaz ere zerbait esan beharko genuke. Ezin esan zehatz-zehazki nortzuk irakurtzen zuten *Ibaizabal*, baina jakin badakigu aldizkariaren egileek norengan jartzen zuten beren konfiantza:

(37) *Ibaizabal*, 1902.III.29, 13. zenbakia, 1. orrialdea.

(38) 1903.XII.6, 100. zenbakia.

apaizengan, hain zuzen ere, nekazariengana heltzeko baliabide bezala. Horregatik, ez da apaizei eta Euskal Herriko goiko gizataldeei gaitzespenik falta:

“Gure ustez, euskeraren barren go gaitza, euskerazkoa da, guk guerok sortua. Euskalerrriak gaur bere izkera gauza guchitzat daduka. Ona zein dan onen gaitza izugarria. Apaizak, aundikiak, ezpañetan bizarra ta eskuetan makilla darabilten guizonik gueien gueienak erderaz ari dira elkarren artean. Au badakite nekazariak; eta guero uste dute euskera, mendiko belarrak kaletako arritarrean bizi ezin diran bezela, uri aundietan jende-artean ezin bizi litekela (...).

Gañera, elizarako liburu bat edo beste izan ezik, beste liburu ta paper guztiak erderazkoak dirala ikusten da (...)” (39).

Ez da kausalitateko gauzarik Azkueren aldizkariak Bilbon agertzea. Bizkaiko hiriburuko kaleetan entzuten zen euskara ez zen bilbotarra, inguruko herrietako nekazariena baizik. Euskara galduta zeukan hiri hartan, heziketa ekonomiko eta industrial izugarriarekin, Sabino Arana Goiriren abertzaletasuna sortzen ari zen. *Ibaizabal* ere sartuko zen abertzaletasun hartan, Bustintzaren eraginez. Euskarari dagokionez, hona hemen nola deskribatzen zuten *Ibaizabalg*oek Bilboko egoera:

“Bilboko kaleetan entzuten dan euskera guztia edo gueiena nekezale antzekoak, baserritarrak umezaiñak, inudeak, arrain-saltzalleak eta onetari-koak eguiten dabe; Jaun usaiñik daukenen artean guichi edo bapez (...). Zegaitik da, bada, onek euskeraz ez bera eguitea? (...). Askoren artean, oituta dagozalako gazte gaztetatik emen gogamenak arguitara erderaz ateraten, batez bere abade, leguegizon, osaguille, ta ikaskuntzetan luzero ibilli direan guztiak (...)” (40).

Euskaldunak ez zeuden batere ohituta euskaraz idatzitako libururik eta, are gutxiago, aldizkaririk ikusten. Egoera hori leuntzera etorri zen *Ibaizabal*, ironiaz beteriko elkarrizketa imajinario honetan bere egileak azpimarratzen zuenez:

“—iEne! ¿Euskeraz bere eguiten dira *periodikuak*?

—Bai, guizon; euskeraz berba eguiten dogun leguez, bardiñ... edo *obeto*.

—¿Euskeraz eguin leiz ba?

—¿Zegaitik ez? —Erderaz baño eziñ eguiñ leikezala uste izan dot (...)” (41).

Gehitxo badirudi ere, egia da. Ia mende erdi bat geroago, 1945. aldera, Espainiako Gerra Zibilaren ondoren BBC Londresetik euskarazko irratsaioren bat emititzeari ekin zionean, Bizkaiko kostaldean jasotzen ziren programa haiek. Hango euskaldunek —batzuk lerro hauek idazteko

(39) 1902.I.26, 4. zenbakia.

(40) 1902.I.12, 2. zenbakia.

(41) 1902.VIII.21, 31. zenbakia.

momentuan zaharrak ez direnek— harrituta geratu ziren, euskara irratiz edo telefonoz hitzegiteko gai ez zela uste baitzuten (42). Baina itzul gaitzen 1902. urtera, Azkue eta Bustintzarekin batera.

Urte hartan, Sabino Arana Goiriren heriotzea gertu zegoelarik, ez zen batere erraza politikatik at egotea. *Ibaizabal*goek hala agindu zuten:

“Ez, guizonak, eztago ta ezta egongo IBAIZABAL partidu onen edo bestearen alde, ta gaur arte, alde batzuetatik eta besteetatik, berba onak eta zorion opaketak baiño eztoz artu, kontuz ibilli garealako politikaz urrundik bizi izateko (...). Orisse da ta izango da gure azalkaria, *¡Gora Euskera!* ez besterik” (43).

Euskararen defentsa hartan, politiko batzuren alde eta beste batzuk kontra jarri behar izan zuten. Romanones gorrotatuena zen, zeren eta ministro zenean “agindu eban ez irakasteko euskeraz kristiñauaren dotriña eskolaumeai” (44). Aldi berean, Jose Mari Urkijo diputatua goraitzen zuten Madrileko Kongresuan botatako hitzengatik, Romanonesen aginduen kontra zihoalako hain zuzen. Sozialistak (“sosolistoak” deituak) ere ez zituzten oso begiko.

Garrantzitsuena, gure ustez, Bustintzaren jarrera zen. Arana Goiriaren abertzaletasunetik gero eta hurbilago zegoen (45). Geroago, dakigunez, Aranaren euskarari buruzko tesien defendatzaile sutsuenetariko bat izan zen, eta Akademiaren kontrakoa (Euzko Alderdi Jeltzaletik gertu zegoen Euzkeltzale Bazkunakoak eta 30. urteetan *Euzkerea* aldizkaria urrunago ailegatu ziren gatazka hartan). Azkue, bere aldetik, Aranaren ideia politikoen alde egon bazen ere, hizkuntzari dagokionez nahiko urrun zegoela, esan daiteke. Bustintzari dagokionez, ikus dezagun nola defendatu zuen 1902.ean gartzeleratu zuten Arana Goiri:

“Euskerea maite eban guztia adiskidetzat ezagutuko ebala esan ebanez IBAIZABAL-ek bere lenengo gueian, da Sabino Arana jauna euskerazalea dala edonok dakianez; euskera-zalea dan aldetik, guk be atsekabe dogu bere katigutasuna, ta ainbat lasterren zabalduko al deutsez ateak, bai berari ta bai Damaso Arana-ri be” (46).

Euskararenganako maitasunak eraman zuen abertzaletasunera. Berriro azpimarratu behar dugu Bilboko egoera berezia, gero eta industria-

(42) 1991.ean Ander Manterolak kontatutako pasadizua.

(43) *Ibaizabal*, 1902.eko ekainaren 1, 22. zenbakia.

(44) 1903.V.24, 73. zenbakia.

(45) Hona hemen Sabin Arana Goiri hil zeneko *Ibaizabalen* argitaraturiko oharra: “Aziak emon dau landarea, ta landara onek bota dauz sustarr sendoak Bilbon, da emendik zabaldu dira ia Bizkaiko ta Guipuzkoako erri askotara, ta gaurko gazteria guizondu daiteanean ikusiko dau bizi izanga danak zelango sendotasuna ta indarra artuko daben landara onek (...)”. Bustintzaren hitzak dira, 1903.eko azaroaren 29an, 99. zenbakian agertuak.

(46) *Ibaizabal*, 1902.eko ekainaren 22, 25. zenbakia.

lizatuagoa zen hiri hark Euskal Herritik kanpo jaiotako pertsona pila jasotzen zuen hiri hartako euskaldunak egoera berriak euskararen aurka jokatuko zuelakoan baitzeuden:

“Zeñiek sinistu bear zuen emen onenbeste euskerazko paper saltzen ziralara ikusirik kale guziak gallegoz, naparrez, andaluzez, frantzezez, eta itz baitean bukatzeko, euskalerritik kanpoko jendez beteak, emengo fabriketan eta burnibidetan lana eguitera etorriak?” (47).

Jarrerarik gogorrena Bustintzarena berarena zen:

“Herbestekoa, guciagoko barik eta herbestekoa dalako bakarrik, inõk eztu charto artu bear; bada ezin izan daike guizon guztiak bizi izatea jaiò garean tokietan, bizimoduaren billa joan bear izaten dogu herbestera sarritan goseak illgo ezpagaitu. Orregaitik, gure lurrera kanpotar asko datozkigu leguez, euskaldun asko dago zabaldua oguia irabazten herbestean (...). ¿Euskaldunak herbestean eguiten dabeena eguiten al dabe emen maketoak? Banaka banaka bat alde batera kendu ezkerò, beste guztiak urrik emon bere ez. Euskereari gorroto andia deutse (...). Bertako semeari goitik begiratuten deutse, uste izanik eurak baño askozaz guichiago dala; gaztelako erdera ondo berba eguiten eztabelako, basati edo *salvaje*-tzat dauke (...). Emengo baserritarra dala esaten dabe animalien artean guizonen antzik andiena daukana. Au ezta neuk asmaua, au neuk irakurri dot Bilbon maketoak maite edo estimau dauken albistari batek (...). Emengo Lege-zar edo Foruen kontrakoak dira (...). IBAIZABAL-ek eztau gaur besterik eguiñ jazoera onen sustarrak aguirian ipiñi baño. Bere aldetik, eztauko maketoen gorrotorik; deskuilla gueiago dauko euskaldun charrakaitik, bada guek ondo maite baquenduz gueure Euskerea ta gueure gauzak, ezkendukez galduko, munduan direan belarrimotz guztiak baletorkiguz bere” (48).

Konponbide bakarra erdaldunek euskara ikastea zen (49). Esan bezala, denboraren poderioz Ebaristo Bustintza eta R.M. Azkue euskarari buruzko bi ideologiaren buru bihurtu ziren.

Ibaizabal Euskalzale baino informatzaileagoa zen. Honek ez du inolaz ere esan nahi edukin literarioak alde batera utzi zituztenik, baina poesiak, ipuinak eta bestelako literatur testuak edukitzeaz gain, bazeukan oso informatzailea zen beste atal bat, “Asteko berriak”. Ez zen oso idea berria, lehenagoko beste euskarazko aldizkariren batean egon bazegoelako horrelako atal bat, hala nola Pariseko *Gure Izarra* hartan. Hego Euskal Herrian, ordea, *Ibaizabalek* hasiera ematen dio geroagoko euskal aldizkari ia guztietan errepikatuko den informazio mota oso garrantzitsu bati, herrietako informazioari, tokian tokiko informazioari. Atal hori osatzeko, Azkue eta Bustintzaren aldizkariak bazeukan berriemate sare bat,

(47) Enrike Elizeche: “Beti euskaldun”, *Ibaizabal*, 1903.eko martxoaren 8, 62. zenbakia.

(48) *Ibaizabal*, 1903.eko abuztuaren 18, 85. zenbakia, 1. orrialdea.

(49) 11903.V.17, 72. zenbakia.

22 pertsonak osatua. Gehienak gipuzkoarrak ziren, hamabost zehazki. Besteak (zazpi) Bizkaikoak. Uste izatekoa da, beraz, *Ibaizabal*, Bilbo alde batera utzita, Gipuzkoan Bizkaian baino gehiago saldu eta irakurtzen zela, aldizkaria egiten zutenek ere uste zuten bezala:

“Eta ziur eztaikit, baiña neure buruko ule zuri guztiak bere jokakuko neukez, Guipuzkoan Bizkaian baiño euslari edo suskritore, ta irakurlari gueiagi daukazala. ¡Oker egongo al naz onetan!” (50),

zioen A.L. Aranbeazkoak, eta *Ibaizabal*goek baietz erantzun: “Ez jauna, zuzen zagoz“. Aranbeazkoaren beraren ustez, Bizkaian ez zen behar aina irakurtzen” politika madarikatutik, (...) euskera utsean dagoalako, *bizkaitarrista*-tzat artutea. Ausse beñipeñ esaten eben *Euskalzale*-gaitik nik dazautazan bizkaitar batzuk”. Hori zela eta, hizkera zela eta edo Gipuzkoa eta Bizkaiko egitura soziolinguistikoen arteko ezberdintasunak zirela eta, Gipuzkoan gehiago saltzen zen: Bilbon ezezik, Bizkaiko zazpi herriotan ere banatzen zen (Bermeon, Lekeition, Lemoan, Plentzian, Mungian, Markinan eta Durangon), eta Gipuzkoan hamabitan (Donostian, Azpeitian, Bergaran, Tolosan –Baleriano Mokoroa arduraduna zen–, Irunen, Deban –banatzailea ostatuko jabea zen, Esteban Egaña, abertzale sutsua, *Arabarra* aldizkarian argitaratu zituen iragarkietan ikus daitekeenez–, Zumaiian, Zarautzen, Oñatin, Arrasaten, Eibarren eta Erreterian). Erreterian asko saltzen omen zen, Bustintzak berak aitortzen zuenez:

“IBAIZABAL-ek Erreterian aiña irakurle daukan uririk eztago ez Bizkaian ez Gipuzkoan, Bilbo alde batera kendu ezker; eun da berrogueta-marretik eun da irurogueira lagunek artzen dabe Erreterian euskerazko albistaria, euskerazkoa dalako (...)” (51).

Hona hemen euskal aldizkariaren gaitza, beren sortzaileek nahi adinako irakurle ez izatea. Ezinezkoa da *Ibaizabalek* zenbat erosle izan zituen jakitea; ziur aski, bi mila baino gutxiago. Dena den, ez aldizkariak sortzen zituen zorrak ordaintzeko behar zituzten beste:

“Aitortu bear dogu igaz IBAIZABAL-ek ezebala irabazi bera bizi izateko laifi, ez gichiago bere; asko galdu eban, ta aurten beste ainbeste guertatzeko bidean goaz. Argui dago bide ori eriotzakoa dala” (52).

Oker ez zeuden. 1904.ean ez zen *Ibaizabal* agertu. Azken zenbakia 1903.eko abenduaren 27koa da. Resurreccion M.^a de Azkuek eta Ebaristo Bustintzak 103 ale kaleratu zituzten. *Ibaizabalek* eredu bati hasiera ematen dio, gero, 20. eta 30.eko hamarkadetan *Argiak*, adibidez, gauza askotan jarraituko duena.

(50) Aranbeazkoa, A.L.: “Euskaldun motelak”, *Ibaizabal*, 1902.eko uztailaren 6, 27. zenbakia.

(51) *Ibaizabal*, 1903.eko otsailaren 22, 60. zenbakia.

(52) 1903.III.1, 61. zenbakia.